

MARKINA-XEMEINGO LANDARE AZOKARAKO OINARRIAK

HELBURUA

Lea-Artibai eskualdean lehen sektoreak orokorrean eta lurreko produktuek izan duten eta daukaten garrantzia kontuan izanik, ezinbesteko jotzen da herritarrengana produktu hauek hurbiltzeko ekimenak aurrera eramatea.

Markina-Xemeingo Udalak ulertzen du lehen sektorea garrantzitsua dela ekonomiarentzat, ingurumenarekiko errespetuarentzat, kontsumo jasangarriarentzat eta biztanleriaren osasunarentzat eta funtsezko sektore izanda, bere bideragarritasunean laguntzeko hainbat ekimen aurrera eramaten ditu, besteak beste, azokak.

APLIKATZEKO EREMUA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak bere 17. artikuluan dioenez, udalek hainbat esparrutan eskuduntza propioak erabili ahal izango dituzte, eta horietako batzuk harreman zuzena dute udalen toki publikoetan jarduerak egiteko kontuan hartu beharreko antolatze lanekin. Horien artean, hauek nabarmenduko ditugu:

- Espazio publikoetan eta konkurrentzia publikoko leku eta establezimenduetan antolatutako ekintzetako segurtasuna antolatzea eta kudeatzea.
- Establezimendu publikoak eta jolas jarduerak antolatzea eta kudeatzea.
- Barne merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta *kudeatzea*.

Horretaz, oinarri hauek Markina-Xemeingo Udalak, 2024ko otsailaren 10ean antolatuko duen azokan aplikatuko dira. Azokaren ordutegia, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 14:30ak arte izango da.

Azoka honetan landare mintegiekin zein ekoizle eta artisauek parte hartu ahal izango dute. Markina-Xemeingo udalak, BBKk lagatako 20 postu jarriko ditu ekoizleentzat eta lekua gordeko du beste parte hartzaileentzat, zeintzuk euren baliabideak erabiliz jarriko duten euren postua.

Parte hartu ahal izateko oinarri hauek bete eta onartuko dituzte, eskari orria betez, eta baieztatu erantzuna jasotzen dutenak izango dute parte hartzeko udal baimena.

Azokan parte hartzen duten postuek ez dute lurraren erabileraren truke inolako tasarik ordaindu beharko.

BAIMENTZEN DIREN PRODUKTU ETA POSTUAK

- a) Osasuneko arriskurik sortzen ez duten produktuak izango dira baimenduta egongo direnak, berezko autoritateen iritziz, eta noizbehinkako kaleko salmentarako indarrean dauden araudiak debekatzen ez dituztenak.
- b) Baldintza orokorretatik aparte postuak eta elikagai mota bakoitza ekoiztu eta eraldatzeko indarrean dauden baldintza higieniko sanitarioak bete beharko dituzte.

Gaurko egunez baldintza horiek esteka honetan jasota dagoz eta kontsultatu daitezke:

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guia_mercados_locales/es_def/adjuntos/GUIA_mercados_locales.pdf

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/guia_mercados_locales/eu_def/adjuntos/GUIA_mercados_locales_eu.pdf

- c) Postuen kokapena antolatzaileak erabakiko du produktu mota, okupatzen duten espazioa eta momentuko egoera eta baldintzen arabera, beti ere aukeren berdintasuneko irizpidea kontuan hartuko delarik.

- d) Landare azoka izanik, landare haztegi edo mintegiei lehentasuna izango dute.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Udal baimena izatea (eskaria aztertu ostean dagokionari emango zaio).
- Salgai jartzen diren produktuak norberak ekoiztutakoak izan behar dira. Ez da birsalmentarik onartzen.
- Bere jarduera ekonomikoagatik dagozkion jarduera ekonomikoko epigrafean eta gizarte segurantzaren alta emanda egotea eta ordainketetan egunean egotea.
- Indarrean dagoen araudiaren arabera nekazaritzako sailak daukan eroldan alta emanda egotea.

JARDUERA	REGEPA	REGA	RGSEAA	REACAV	RIAA ¹
EKOIZPEN PRIMARIOA					
Landare jatorria	X				
Animalia jatorria		X			
ERAGIKETA LOTUAK²					
Landare jatorria	X				X
Animalia jatorria		X			X
TRANSFORMAZIOA³					
Konbentzionala			X		X
Malgutua ⁴				X	X

(1) Azoka edo feria ekoizpenaren tokiko inguruko eremuan bada, ez da RIAAn inskribatu behar.

Industria agraria y alimentaria: instalaciones capaces de funcionar como empresa autónoma cuyos productos no sean comercializados exclusivamente al consumidor final ni a mercados de la propia localidad.

(2) Landareak: adib. Ekoizpen lekuan landareak sailkatzea eta ontziratzea (Gida: 23. orria)
Animaliak: adib. Erlezainaren instalazioen barruan eztea ontziratzea

(3) Transformazio jardueraz gain, ekoizleak ekoitzi ere egiten badu, REGAn edo REGEPAn ere egongo da, bietatik dagokionean. (Gida: 25. orria)

(4) EAEko malgutzearen barne badago. (Gida: 50. orria)

- Merkaturatzen dituen produktuen arabera berezko araudiak ezartzen dituen baldintza higieniko sanitarioak eta bestelakoak betetzea.
- Ekimena gauzatzen den egunean salmenta justifikatzen duen agiria jaurtitzeko gaitasuna (salmentako agiria edo tiketa).
- Ontziratutako produktuen kasuan ustiakuntza edo eraldatzeko zentroaren kodearekin identifikatzea.
- Salduko diren produktuak arautzen dituzten baldintza higieniko sanitarioak eta bestelako arauak (mantenimendu, garraio eta manipulatzekoak besteak beste) ezagutu eta betetzen dituela aitortzea bere erantzukizun bakarraren pean.
- Autonomo edo mikroenpresa izatea Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean ezarritako irizpideak jarraituz.

ESKAERAK AURKEZTEA ETA EPEA

Eskaera orria bestelako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da Markina-Xemeingo udaleko erregistroan (Goikoportala 3) edo eta ondoko helbide elektronikoan: udala@markina-xemein.eus

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 3an irekiko da eta eskaerak jasotzeko azken eguna 2023ko urtarrilaren 10a izango da.

Ez dira onartuko epez kanpo aurkeztutako eskaerak.

DOKUMENTAZIOA

Ekoizleek aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskari orria (I eranskina)
- Erantzukizunpeko adierazpena (II eranskina)

Artisau, Landare haztegi edo mintegien kasuan, aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskari orria (I eranskina)
- Ogasunean zein gizarte segurantzaren alta emanda daudenaren ziurtagiria.

Erakunde antolatzaileak, oinarrietan agertzen diren baldintzak betetzen dituela edo eta irizpideetan agertzen diren atalak baloratu ahal izateko, beren-beregi ziurtatu ahal izateko edozein dokumentazio gehigarri eskatu ahal izango dio partehartzaileari.

POSTUAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Ekimen bakoitzak dauzkan ezaugarriak kontuan hartuta produktu ezberdin bakoitzaren saltzaile kopurua mugatua izango da.

Landare azoka izanik, landare mintegi edo eta haztegiek lehentasuna izango dute, eta lekua, aurreko urteetako parte hartzea eta landare motaren arabera antolatzaileek erabakiko dute zenbati eman baiezko erantzuna.

Ekoizleen artean lehentasunak erabakitze eta eragileak esleitzeko momentuetarako ondoko irizpideak erabiliko ditu Markina-Xemeingo udalak, gehienez 40 puntu lortu daitezkeelarik. Produktu mota baterako puntuazio berdina lortuz gero zozketa bidez esleitu da postua.

- Titulu Nagusiko Baserritarra (ATP) izatea: 5 puntu.
- Emakume baserritarra izatea edo eta titularra emakumezkoa izatea, sozietateen kasuan proportzioan banatuko da: 5 puntu.
- Elaboratutako salgaien kasuan, nork bere etxaldean sortutako lehengaiak erabiltzeagatik: 5 puntu.
- Elaboratutako salgaien kasuan baimendutako instalazio propioak dauzkaten ustiategiak: 5 puntu.
- Euskal Erkidego Autonomoko kalitateko marka babestuak edo eta Jatorri Deiturak (Eusko Label, Idiazabal Jatorri Deitura, Bizkaiko Txakolina Jatorri Deitura, Euskal baserri,...): 5 puntu izendapen bakoitzagatik. Gehienez 15 puntu lortu ahal dira.
- Ingurumenarekiko jasangarritasun irizpideak:
 - Produktuak garraiatzeko ibilgailu elektriko edo hibridoa erabiltzea: 5 puntu
 - Jasangarritasuna eta kutsadura ekiditeko helburuarekin, ekimena egingo den puntutik produktuaren jatorria daukan zentrorainoko kilometro bakoitzeko (beti ere errepide-saretik neurtua): minus 0,1 puntu. Gehienez 10 puntu kendu daitezkeelarik

Artisauen kasuan, eskari guztiak aztertu ostean lekua, aurreko urteetako parte hartzearen arabera esleitu da, beti ere, bertoko eta betiko lanak direnak lehenetsiz eta kontuan izango da baita ere artisauen erregistroan alta emanda egotea..

PROZEDURA ETA ESLEIPENA

Aurkeztu beharreko dokumentazioari udalak daukan erregistroko zerbitzuen bidez sarrera eman behar zaie.

Eskariak aurkezteko epea amaitzean, eskari guztien azterketa egingo da eta eskumena duen organoak ebatziko du baimena ematea edo ukatzea. Erabaki hau hartzeko antolatzaileak, horrela uste badu, beharrezkoak ikusten dituen txostenak edo eta dokumentuak eskatu ahal izango dizkio egoki irizten dien partehartzaile-gaiei.

Behin oinarrietan adierazten diren irizpideen araberrako balorazioa egin ostean, honela banatuko dira 20 postuak, kontutan izanik, ekoizle bati postu bat baino gehiago ere esleitu ahal izango zaiola egindako eskariaren arabera:

- Ortuariak 2 postu
- Esnekiak 5 postu
- Ogi eta gozogintza 3 postu
- Haragikiak 3 postu

- Ahatekiak 1 postu
- Kontserbak 3 postu
- Eztia 1 postu
- Arrautzak 1 postu
- Edariak (sagardoa, txakolina, ardoa, artisau garagardoak...) postu 1

Produktu tipologiaren bateko postu guztientzako nahikoa eskari ez badago, beste ataletan esleitutako postuen kopurua handitzeko aukera egongo da, beti ere, baldintzak betetzen dituzten eta beste ataletako kopuruagatik kanpo gelditu direnen artean edo eta epez kanpo aurkeztu direnen artean.

Beste lekuaren arabera esleituiko dira landare haztegi eta artisauen eskariak.

Ebazpena egin ostean, eskaria aurkeztu duten interesdunei idatziz erantzungo zaie, baiezkoa zein ezezkoa izan.

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Salmenta egiteko udal baimena jasoko duten pertsonen ondoko eskubideak dauzkate:

- Baimena daukaten postua okupatu
- Udalak baimendutako salmenta gauzatu ahal izan, beti ere ezarritako baldintzen arabera
- Azokaren funtzionamendua hobetzeko egoki deritzen erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu
- Identifikatzeko txartela jaso

Salmenta egiteko udal baimena jasoko duten pertsonen ondoko betebeharrak dauzkate:

- Ekoizle bakoitzak bere produktua baino ezin izango du saldu, bere ustategian edo baimen sanitarioa daukan establezimendu baten ekoiztutakoak izan behar dute.
- Saltzaile bakoitza produktu motagatik aukeratua izan denez, produktu horiek bakarrik saldu ahal izango ditu.
- Egokitu zaion postua eta espazioa baino ez okupatu.
- Emandako identifikazioaren euskarriak edonork ondo ikusteko moduan edukitzea, bai kontsumitzaile zein udal agintaritzarentzat. Betebehar hau ez betetzeak postuaren altxatzea erakarri dezake eta baita ere, horrela badagokio, zigorra ezartzeko espediente hastera.
- Momentu guztietan indarrean dagoen araudia errespetatu
- Merkaturatzen diren produktuen informazioa, euren prezioak, eta ekoizleak identifikatzeko kontsumitzaileak behar duen informazioa ondo ikusteko moduan eduki denbora guztian. Produktuen prezioak argi eta errakuntzara ez eroateko moduan egongo dira kartel edo etiketen bidez.
- Saltzaileen ibilgailuak ezarritako lekuetan aparkatuko dira.
- Erreklamazio orriak eskuragarri edukiko dituzte eta hori adierazten duen esaldia ikusgarri.

- Eskaintzen dituzten produktuak neurtu edo pisatzeko araututako baskula edo neurgailua eduki.
- Hotza eskatzen duten produktuak egokiak diren hozkailuetan gordeko dira.
- Ontziratu gabeko produktuak pantailekin babestu behar dira.
- Ezin dira elikagaiak lurrean eduki.
- Erosleek eskatuz gero salmentako agiria jasotzeko eskubidea daukate (faktura edo tiketa). Bertan ondoko datuak agertuko dira:
 - Datu pertsonalak
 - NAN edo IFK
 - Egoitzaren helbidea
 - Data
 - Produktua
 - Prezioa
 - Kantitatea
- Sortutako hondakinak biltzen joango dira eta salmentako ordutegia amaitzen denean prestatutako puntuetara eramango dira, postua eta bere ingurua txukun utzi beharko ditu.
- Hasteko eta amaitzeko ordutegia errespetatuko da eta bitartean ezin izango da ibilgailurik salmenta esparruan sartu.
- Ekimenak irauten duen artean derrigorrez bete beharko dira begirune, txukuntasun eta garbitasun baldintzak. Saltzen dagoenak garbi egon behar du, baita ere aldean daramatzan arropak eta jarduerarako behar dituen tresnak.
- Produktua zatitzea baimenduta dagoen kasuetan derrigorrezkoa izango da salmenta-puntu horretan edangarria den ura egotea. Aukera dute txorrodun ur-biltegiak, xaboi likidoa eta paperezko zapiak edukitzea.
- Ontziratu bako produktuak produzitzen dituzten ekoizle guztiek eduki beharko dute Elikadura Higiene arloko Prestakuntza jaso dutela egiaztatzen duen Norbanako Ziurtagiria eguneratua, ortuari eta fruta kasuak ezean.
- Elikagaiak ondo ordenatuta jarriko dira ikusgai, sailkatuta eta banan, bakoitzak bere ezaugarri bereziei eusteko eta usainak, zapore arraroak eta kutsadura ekiditeko
- Azoka amaitzen denean, salmenta-postua eta ingurua garbi eta txukun itxi beharko dute. Zoladurari, arbolei edo jabetza publikoko ondasunei kalteren bat eraginez gero eurek izango dira kalteak konpontzearen erantzule. Horretaz gain, euren jardueraren ondorioz hirugarren bateri edo batzuei kalte edo galeraren bat sortuz gero (pertsonei edo euren ondasunei) kalte edo galera horien erantzule be izango dira. Beraz dagokien erantzun zibileko aseguruia eduki (eta hori horrela dela egiaztatu) beharko dute.
- Etorkizunean indarrean egon daitezkeen araudiak betetzeko betebeharra, nahiz eta araudi honetan jaso barik egon.
- Ekoizpen zentroak ikuskatu ahal izateko erraztasunak eman.

ZIGORTZEKO ERREGIMENA

Udalak zainduko du araudi honetan jasotako betebeharrak betetzea.

Bere eskumenen arabera udalak produktuak eta postuak ikuskatu ahal izango ditu eta horiei buruzko informazioa eskatu.

Saltzeko ipintzen diren produktuak osasun edo segurtasunerako arriskua ekarri badezakete, iruzurrekoak badira, faltsuak badira, identifikatu barik badaude edo saltzeko gutxienekoak ez badira betetzen espedientea zabaltzea ekar dezakete eta baita produktuak inkautatzea ere.

Beste entitate eta instituzioek dauzkaten zigortzeko eskumenetatik aparte agirian gelditzen diren faltak udalak zigortu ahal izango ditu, araudi honek ezartzen duenaren arabera.

Indarrean dagoen prozedura administratiboak arautzen du zigorrak ezartzea eta baita errekursoak ipintzea ere.

Udal baimena daukaten titularrak dira bere postua okupatzen duten kideen falta eta arau ez betetzearen erantzuleak.

Ez betetzeak arinak eta larriak izan ahal dira.

- Arinak: araudi honetan jasotako baldintzak ez betetzea baina kontsumitzaileentzat kalte ekonomiko edo osasunerako eraginik ez dituztenak.
- Larriak:
 - Arau hauste sanitario larriak eta pertsonen osasuna arriskuan ipintzen dituztenak.
 - Kontsumitzaileei eragin larriak sortzen dizkienak.
 - Ordena ekonomikoa apurtzen dutenak.

ZIGORRAK:

Arau hauste arinak: Abisua edota 1.500 €tarainoko isuna.

Arau hauste larriak: 9.000 €tarainoko isuna edota hurrengo 4 ekimenetan berriro parte hartzeko eskubidea galtzea.

Espedientea ebatzi behar duenak produktuen inkautazioa ere erabaki dezake, faltsuak izateagatik edota identifikazio barik egoteagatik.

KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

Parte hartzaile guztiei jakinarazten zaie beraien datu pertsonalak erakunde antolatzaileak tratatuko dituela azoka honetarako eskaera eta partaidetza, eta oinarri hauek onartzeagatik ezarriko den kontratu harremana kudeatzeko, baita erakunde antolatzaileak dituen betebeharrak legalak betetzeko ere. Zure datu pertsonalen tratamenduari edo datu horietara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, eramateko eta aurka egiteko duzun eskubideari buruzko informazio gehiago izango duzu eskaerak aurkezteko formularioko klausula espezifikoan.

EZINBESTEKO KAUSAK

Interes publikoko edozein arrazoiengatik, agintari publikoek azoka egitea debekatuko balute, edo azoka egiteko antolatzaileen ustez bideragarriak ez diren baldintzak ezarriko

balituzte edo beste kanpo arrazoiengatik azoka bertan behera utzi beharko balitzateke, kode zibilaren 1.105 artikuluan ezarritakoaren ildotik, parte-hartzaileek ezingo diote inolako zenbatekorik eskatu antolatzaileari merkatua bertan behera geratzeagatik.

AMAIERA

Oinarrien agiri honetan aurreikusi ez diren egoerak edo baldintzak erakunde antolatzailearen irizpideen arabera ebatziko dira eta bere erabakiei ezingo zaie errekurtsorik jarri.